



## DBA Bilbao Port, S.L.

### Enpresaren identifikazioa eta helbidea

#### DBA Bilbao Port, S.L.

Punta Sollana 3 zbk., Bilboko portua  
48508 - Zierbena (Bizkaia)

DBA Bilbao Port, S.L. establezimendua (Zierbena, Bizkaia) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenen mende dago (substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen ditu dekretu horrek), eta 7. artikuluan xedatzen den jakinarazpena aurkeztu dio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, artikuluko 1. apartatuan zehazten den edukiarekin, baita 10. artikuluko 1. apartatuan adierazten den segurtasun-txostena ere.

### Establezimenduaren jarduera

Depositu eta biltegiatzea.

### Istripu larria eragin dezaketen substantziak

Izena	H esaldiak	Piktogramak
Gasolina	<p><b>H224:</b> Likido eta lurrun guztiz sukoiak</p> <p><b>H411:</b> Toxikoa da uretako organismoentzat, eta ondorio kaltegarri iraunkorrak dauzka</p>	
Gasolioa	<p><b>H226:</b> Likido eta lurrun sukoiak</p> <p><b>H411:</b> Toxikoa da uretako organismoentzat, eta ondorio kaltegarri iraunkorrak dauzka</p>	

### Gerta daitezkeen istripu larriak eta horien balizko ondorioak

DBA Bilbao Port, S.L. enpresaren instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenarentzako kaltegarriak daude. Substantzia horien ezaugarriak eta kantitateak kontuan hartuta, arriskuen analisietatik ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, establezimendutik kanpo eragiten duten istripuak) produktu horiek tartean dauden istripu zehatzetan bakarrik gerta daitezkeela.

Establezimendutik kanpo eragina izateko moduko istripu larria ekar dezakeen kasurik okerrenea gasolina deposituan leherketa da.



## Establezimenduak nola jokatu behar duen istripu larria izanez gero

Enpresak neurri egokiak hartu behar ditu establezimenduan, eta larrialdi-zerbitzuekin jarri beharko du harremanetan, istripu larrien kasuan jardun eta arriskuak ahalik eta gehien murrizteko.

Establezimenduan esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak auto-babeserako planean jasota daude.

### Kanpoko Larrialdi Plana

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak DBA Bilbao Port, S.L.-ren Kanpoko Larrialdi Plana egin du istripuak prebenitzeko, eta, istripuren bat gertatuz gero, pertsona guztiei informatzeko nola jardun behar duten, betiere 840/2015 Errege Dekretuaren 13. artikularekin bat etorritz.

Kanpoko Larrialdi Plan honek jarduteko jarraibide zehatzak ditu larrialdi-zerbitzuentzat, eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jasotzen dira.

Ustezko larrialdi bat planifikatzeko helburuarekin, bi jarduketa-gune definitu dira: esku hartzeko gune bat, zeinean istripu baten ondorioek eragindako kalteen mailak justifikatuko lukeen babes-neurriak berehala aplikatzea; bestalde, alerta-gune bat, zeinean istripu baten ondorioen eragina herritarrek ikusteko modukoa izaki, esku-hartzea justifikatzen ez duen, salbu eta biztanleriaren talde kritikoentzat.

Arriskuen ebaluazioari jarraikiz, eta hipotesi eta egoera okerrenerako, hauek definitu dira: esku hartzeko gune bat, 45 metroko erradioa duena, eta alerta-gune bat, 102 metroko erradioa duena.

### Herritarrentzako alerta eta informazioa

Istripu larriren bat eragin lezakeen egoeraren bat gertatuz gero establezimenduan, inguruko enpresei ohartaraziko zaie eta informazioa emango zaie.

### Herritarrek zer neurri hartu behar duten larrialdiren bat egonez gero

#### Konfinamendurako eta Autobabeserako Oinarrizko Jarraibideak

- Kanean bazaude, babestu arnasbideak musuzapiekin.
- Itxi ateak eta leihoak; ahal izanez gero, itxi pertsianak eta urrundu.
- Behar izanez gero, jarri trapu hezeak zirrikituetan.
- Ez erabili aireztapeneko aparatuek.
- Saihestu eraikinen behealdeko puntuak, hala nola sotoak eta garajeak, eta, ahal izanez gero, igo goiko pisuetara.
- Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada behintzat.
- Entzun herri-irratia eta jarraitu agintariek emandako gomendioak eta jarraibideak.



## Urrutiratzeko eta babeslekua hartzeko jarraibideak

Urrutiratzea eta babeslekua hartzea beharrezkoa izanez gero, informazioa helaraziko zaie herritarrei eta gertuko establezimenduei. Horretarako, zuzeneko abisuak emango zaizkie komunikabideen bitartez, hots, nora eta nondik joan behar duten, honako jarraibide hauek kontuan hartuta:

- Urrutiratzen zaren bitartean, babestu arnasbideak musuzapiekin edo trapuekin, eta bilatu babeslekua.
- Joan behar duzun lekura iristen zarenean, bilatu babeslekua lokal edo eraikin baten barruan, eta itxi leihoak eta atea.
- Ez joan eskolara zure seme-alaben bila; haien arduradunei ondo jakinaraziko zaie zein neurri hartu.
- Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada behintzat.
- Entzun herri-irradiak eta jarraitu agintariek emandako gomendioak eta jarraibideak.



**Babestu arnasbideak**



**Informazioa jaso komunikabideen bitartez**



**Esparru edo establezimendu hurbilenera joan**



**Ez erre, ez piztu surik**



**Itxi atea eta leihoak**



**Ez erabili aire girotuko edo berokuntzarako ekiporik**



**Ez utzi ibilgailurik zirkulazioa oztopatzeko moduan**



**Establezimenduko babes-planaren arabera jokatu**



**Ez hurbildu establezimendura**



**Ez joan haurren bila eskolara**

## Azken ikuskapena

2023ko apirilaren 11an egin zen azken *in situ* ikuskapena.

Aurrez eskatuta, azken *in situ* bisitaren eta ikuskatze-planaren datuak lor daitezke, hemen:



**Industria Erregelamendu eta Segurtasun Zerbitzua**

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza  
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila  
Donostia kalea 1  
01010 Vitoria – Gasteiz

**Informazio gehigarria**

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona:

**Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza**

Foronda kalea 41, La Torre eraikina  
01010 Vitoria – Gasteiz